

IRAKURKETA MINTEGIA

2023-2024. ikasturteko programaren ildo nagusiak

- 0-12 urte bitarteko haurrentzako liburuak erabiliko dira.
- 2023an kaleratu diren liburuak irakurri eta aztertuko dira.

HELBURUAK

- Formazioa eskaini haur literaturan eta irakurketarako dinamizazioan.
- Liburuen balorazio irizpideak eta aurkezpen fitxak landu.
- 2023an 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat euskaraz kaleratu diren literatura obra guztiak irakurri eta bakoitzaren aurkezpen bat idaztea Galtzagorriren webgunean zintzilikatzeko.
- *Liburuen Altxorra / Liburu ibiltariak* eta beste zenbait proiektutarako liburu zerrendak osatzea.
- Urtero euskaraz haurrentzat argitaratutakoaren *kalitatea neurtzea*, estatistikak osatuz.

GIDARIAK

- Imanol Mercero, literatura kritikaria.
- Larraitz Idarreta, bibliotekaria.

DATAK, ORDUAK, LEKUA

- Donostiako Haur Liburutegi Nagusian egingo dira saioak: Fermin Calbeton, 25 (Alde zaharra).
- Saioak hilean larunbat batez: 10:00etatik 13:00etara izango dira. Egutegi zehatza:

2023	2024	
Irailaren 23a	Urtarrilaren 13a	Apirilaren 13a
Urriaren 21a	Otsailaren 17a	Maiatzaren 18a
Azaroaren 11	Martxoaren 16a	Ekainaren 15a
Abenduaren 16a		

PROGRAMA- FORMAZIOA

Irakurketa mintegiaren ohiko saioez gain, aurten formazio saio berri bat antolatu du Galtzagorri elkarteak.

Juan Kruz Igerabide idazle eta poetak eta Maite Mutuberrria ilustratzaileak “Hitzen kulunka” formazio saioa eskainiko dute, haur poesiari buruzkoa, hitza eta ilustrazioa elkar hartuz.

Batetik, nola erabil dezakegu haur poesia eskolan eta liburutegietan? Zer estrategia dauzkagu eskura? Haur poesiaren historia osatu bat egiteke dago, baina batez ere haur poesiaren erabilera praktikoaz jardungo dira. Nola jolastu poemekin? Nola sortu giroa poema intimoak ere (ez soilik jolasekoak) irakurtzeko? Bestetik, ikastaroan ilustrazioaren alorra ere landuko dute, besteak beste, bitartekariak ilustrazioaren bitartez gazteak eta haurrak poesiara erakarri ditzaketelako; finean, ilustrazio guztia, ilustrazioa bada, poetikoa delako.

Saio monografikoa **2023ko azaroaren 25ean izango da, goizez, San Telmo museoan.**

Formazio saio hau mintegikideei bereziki eskainia egongo den arren, publiko orori irekia izango da. Mintegiko kideentzat doan izango da. Bazkideek prezio berezia izango dute. Aurrerago zehaztuko zaizkizue formazio saio honen nondik norakoak eta izena emateko eman beharreko urratsak.



Galtzagorri elkarteak. Zemoia kalea 25, behea. 20013 DONOSTIA.
Telef.: 943 471 487 E-maila: administrazioa@ibbygaltzagorri.eus